

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Billares Sam SAU enpresaren jarduerarako udal baimen eskaera**

Billares Sam SAU enpresak jarduerarako udal baimenaren eskaera aurkeztu du N-1 errepidean, 340 kilometroan, dagoen industria eraikinaren estalkian 300 kW-ko instalazio fotovoltaikoa jartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko Lege orokorraren otsailaren 27ko 3/1998 Legean xedatutakoaren arabera (lege hori aldatu du apirilaren 7/2012 23 Legeak, zeinaren bidez hainbat lege aldatzen baitira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 2006/123/CE 12 Zuzentaraura, barne merkatuko zerbitzuei buruzkora, egokitzeko), eta haren 58.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eskaera ezagutarazten da, aipatutako jarduerak nola edo hala eragiten diela uste dutenek egoki deritzeten alegazioak edo oharrak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2020ko ekainaren 18a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**